

Euskal AEko industria-jarduerak % 0,4 egin du behera 2023ko apirilean


Urteko lehen lauhilekoaren balantzea industria-produkzioaren indizearen % 1,5eko hazkuntzarekin itxi da

Euskal AEko industria-produkzioa, 2023ko apirilean, aurreko urteko hil berean baino % 0,4 baxuagoa izan da, lan-egutegiko termino homogeneoetan, Eustatek emandako datuen arabera. 2023ko lehen lau hiletan metatutako produkzioa, berriz, aurreko urteko aldi berekoa baino % 1,5 handiagoa izan da.

Aurreko hilarekin alderatuta –2023ko martxoa–, Euskal AEko industria-jarduerak % 3,2 egin du behera azken hilabete honetan, urtaro-ondorio egokiak zuzenduta.

Euskal AEko Industria-produkzioaren indizearen urte- arteko aldakuntza-tasa (%)

Jaiegunen eraginetatik zuzendua



Iturria: Eustat. Industria-produkzioaren indizea

Ondasunen helmuga ekonomikoen arabera, *Energiaren* produkzioak % 2,5 egin du behera urte arteko terminoetan 2023ko apirilean. Sektore horretan, energia elektrikoaren eta petrolio-fintzearen produkzioa eta hornikuntza barne hartzen dira.

Ekipo-ondasunen produkzioak % 0,8ko beherakada izan du, aurreko urteko apirilarekin alderatuta. Haien artean honako hauek daude: motordun ibilgailuen fabrikazioa; lokomotorren eta trenbide-materialaren eraikuntza, eta eraikuntza aeronautikoa edo ontzigintza.

Urte arteko % 0,3ko beherakada izan dute produkzioan, era berean, *Tarteko ondasunek*, besteak beste, metalurgiak eta produktu metalikoen fabrikazioak, industria kimikoak eta kautxuzko eta plastikozko produktuen fabrikazioak.

Kontsumo-ondasunek, berriz, urte arteko portaera positiboa izan dute 2023ko apirilean; produkzioak gora egin du % 2,1 sektorean. Hazkuntza hori *Kontsumo ez-iraunkorreko ondasunen* portaeraren ondoriozkoa da, % 5,7ko igoera izan baitute produkzioan. Haietan, honako jardura hauek sartzen dira: elikagaien prozesatua eta kontserbazioa; garbitasunerako eta higienarako produktuen fabrikazioa; farmaziako produktuak, eta arropen jantzigintza. Bestalde, *Kontsumo iraunkorreko ondasunen* produkzioak % 11,2 egin du behera. Haietan sartzen da, besteak beste, altzari eta etxeko tresnen fabrikazioa.

Euskal AEko Industria produkzioaren indizea lurralde historikoaren eta ondasunen helburu ekonomikoaren arabera. Aldakuntza-tasak (p). Apirila 2023

	Egutegi eraginak zuzendutako datuak		Datu desestacionalizatuak
	m / m-12	Am / A(m-12)	m / m-1
INDIZE OROKORRA			
Euskal AE	-0.4	1.5	-3.2
Araba/Álava	2.0	4.2	-2.4
Bizkaia	0.7	0.8	-4.8
Gipuzkoa	-2.9	0.7	-2.1
ONDASUNEN HELBURU EKONOMIKOAREN ARABERAKO INDIZEAK			
Kontsumo-ondasunak	2.1	2.7	-0.9
Kontsumoondasun iraunkorrak	-11.2	-1.8	-1.8
Kontsumoondasun ez-iraunkorrak	5.7	3.8	-0.7
Ekipo-ondasunak	-0.8	3.9	-6.2
Bitarteko ondasunak	-0.3	2.4	-4.2
Energia	-2.5	-8.5	-0.2

(p)Behinbehineko datuak

m/m12 Azken hileko (m) aldakuntza-tasa, aurreko urteko hil beraren (m-12) aldean

Am / A(m-12) Urte arteko aldakuntza-tasa, urtariletik behatutako azken hileraren artean (Am), aurreko urtean pilatutako aldi beraren (A(m-12)) aldean

m / m-1 Azken hileko (m) aldakuntza-tasa, aurreko hilaren (m-1) aldean

Data 2023ko Ekainaren 5a

Iturria: Eustat. Industria-produkzioaren indizea

Maila bereiziago batean, Euskal AEko industrian pisu gehien duten sektoreen artean, 2023ko apirilean urte arteko hazkuntza handiena izan dutenak honako hauek izan dira: *Elikagaigintza, edariak eta tabakoa* (% 5,9), *Material eta ekipo elektrikoa* (% 5,7) eta *Kautxuak eta plastikoak* (% 1,1). Urte arteko tartean produkzioaren jaitsiera izan duten sektoreak, berriz, honako hauek izan dira: *Zuraren, paperaren eta arte grafikoaren industria* (% 9,5), *Makinak eta ekipoa* (% 3,7), *Garraio-materiala* (% 2,3) eta, azkenik, *Energia elektrikoa, gasa eta lurruna* (% 2,0 egin du behera).

Euskal AEko Industria produkzioaren indizea. Sektore A38 nagusiak (1). Urte arteko hazkunde-tasa (p). Apirila 2023

	m / m-12
Elikadura ind., edariak, tabakoa	5,9
Zurgintza, papera eta arte grafikoak	-9,5
Kautxua eta plastikoak	1,1
Metalurgia eta produktu metalikoak	1,0
Materiala eta tresna elektrikoak	5,7
Makineria eta tresneria	-3,7
Garraio-materiala	-2,3
Energia elektrikoa, gasa eta lurruna	-2,0

(p)Behinbehineko datuak

Egutegi eraginak zuzendutako datuak

(1)Euskal Aeko industrian pisurik handiena duten sektoreak

Data 2023ko Ekainaren 5a

Iturria: Eustat, Industria-produkzioaren indizea

2023ko apirilean, Industria-produkzioaren indizearen urte arteko bilakaera positiboa izan da Araban; bertan, produkzioaren hazkuntza % 2,0koa izan da, eta Bizkaian, % 0,7koa. Gipuzkoan, berriz, produkzioa % 2,9 jaitsi da, aurreko urteko apirilarekin alderatuta.

2023KO LEHEN LAUHILEKOAREN BALANTZEA

Urteko lehen lau hilen metatuan, industria-produkzioaren indizeak % 1,5eko hazkuntza izan du, *Ekipo-ondasunen* eta *Kontsumo-ondasunen* ondorioz (% 3,9 eta % 2,7, hurrenez hurren). *Tarteko ondasunek* ere bilakaera positiboa metatu dute, % 2,4ko hazkuntzarekin, aurreko urteko aldi metatu berarekin alderatuta, eta *Energiak*, berriz, urteko lehen lauhilekoan metatu duen produkzioa % 8,5 jaitsi da.

Lurralde historikoen arabera, 2023ko lehen lauhilekoko metatua balantze positiboarekin itxi da hiru lurraldeetan: Araban, % 4,2rekin; Bizkaian, % 0,8rekin, eta Gipuzkoan, % 0,7rekin.

INFORMAZIO-OHARRA

Eustatek eskerrak eman nahi dizkie informazio-bilketan elkarlanean jardun duten establezimendu guztiei. Haiei esker, hil honetako indizea laginaren **% 92,87ko** estaldurarekin kalkulatu da.

Argibide gehiagorako:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística
Donostia-San Sebastian kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz
Prensa Zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tel.: 945 01 75 62